

FINANTZA-TRESNAK ZAINDU ETA ADMINISTRATZEKO KONTRATU-EREDUA

(e)n, (e)ko aren (e)an.

Alde batetik Banco Santander S.A. (aurrerantzean, Bankua), egoitza soziala Santanderren duena, Paseo de Pereda, 9-12, eta A-39000013 IFZ zenbakiduna; Santanderreko Merkataritza Erregistroan inskribatua, 286. orrian, 64. folioan,

Sozietateen 5. liburuan 1. inskripzioan; bere _____
sukurtsalaren bitartez, _____ helbidean dagoena
_____; ekitaldi honetan behar bezala ordezkatzeko dute _____ jaunak/andreak
_____, _____ IFZ
zenbakiduna, eta
jaunak/andreak, _____ IFZ
zenbakiduna

_____ ahalordedunak diren heinean _____ (e)n eta
_____ (e)n, _____ urteko _____
_____ ren (e)an eta _____ ren _____ Notario jaun/andrearen
(e)an

_____ eta _____
Notario jaun/andrearen aurrean eta _____
_____ eta _____ protokolo zenbakiekin, hurrenez hurren,
egiletsitako ahalorde eskrituren arabera.

Eta, beste aldetik, jarraian adierazitako finantza-tresnen zorroaren eta kontratu honen titularra(k):

Izen-abizenak: _____, IFZ/ Nortasun Agiri Nazional zenbakiduna. Nazionalitatea:
. Bizilekuaren herrialdea: _____ Helbidea: _____ . Jarduera (CNAE) _____, Egoera profesionala:

Esku-hartze mota:

Izen-abizenak: _____, IFZ/ Nortasun Agiri Nazional zenbakiduna. Nazionalitatea:
. Bizilekuaren herrialdea: _____ Helbidea: _____ . Jarduera (CNAE) _____, Egoera profesionala:

Esku-hartze mota:

Ordezkarien edo ahalordedunen datuak:

Izen-abizenak _____, IFZ/ Nortasun Agiri Nazionala _____.

Esku-hartze mota _____

Ahalorde eskriturak: egilestearen tokia eta data Notario eskueslea _____, protokolo zk.

Lotutako kontuaren titularra(k):

IFZ / Nortasun Agiri Nazionala _____ (esku-hartze mota)
Helbidea: _____ Bizilekuaren herrialdea: _____

IFZ / Nortasun Agiri Nazionala _____ (esku-hartze mota)
Helbidea: _____ Bizilekuaren herrialdea: _____

Pertsona juridiko titularra:

Izen soziala: _____
_____ IFZ zenbakiduna. Nazionalitatea: _____.

Helbidea: _____.

Jarduera (CNAE) _____.

Esku-hartze mota: _____

Erakunde juridikoaren kode identifikatzailea (LEI): ¹: _____

Merkataritza Erregistroa _____, _____ liburukia,
_____ folioa, _____ orria, inskripzioa _____

Ordezkarien edo ahalordedunen datuak:

Izen-abizenak _____, IFZ / Nortasun Agiri Nazionala _____ esku-hartze mota Ahalorde eskriturak:
egilestearen tokia eta data _____, Notario eskueslea _____, protokolo zk.

xxxxxxxxxxxxxxxxx FINANTZA-TRESNEN ZORROA

Erabiltzeko era: _____ (bereizezina edo mankomunatua)

BALORE- KONTUA (CCV)

Erabiltzeko era: _____ (bereizezina edo mankomunatua)

LOTUTAKO ORDAINKETA / ZORDUNKETA-KONTUA – (CCC)

IBAN Dibisa: EUROA

Erabiltzeko modua: _____ (bereizezina edo mankomunatua)

ORDAINKETA / ZORDUNKETA-DIBISA KONTU KORRONTEA:

IBAN Dibisa:

Erabiltzeko era: _____ (bereizezina edo mankomunatua)

Komunikazioak:

Helbide elektronikoa:

Telefono-mugikorra:

POSTA JASOTZEKO HELBIDEA ESPAINIAN. Titularrak honako hau ezarri du posta jasotzeko helbide:

Titularra pertsona fisikoa baldin bada eta bankua Internet bidez kontratatu badu, Bankuaren ohiko jakinarazpenak Internet bidez jaso ahal izango du, hala eskatu badu.

Bankuak eta titularrak edo titularrek (aurrerantzean, Bezeroa) finantza-tresnak zaindu eta administratzeko kontratu-eredu hau eratzea adostu dute, bertan zehaztutako baldintza partikular eta orokorretan xedatutakoa jarraitzeko.

Merkataritza-kontratu honek balore-merkatuaren inguruko legerian xedatzen diren jokabide-arauen eta _____ informazio
betekizunak betetzen ditu, bai eta baldintza partikular eta orokor hauek ere.

¹ Entitate Juridikoaren identifikatzailea (LEI, ingelesezko siglengatik) kode global eta bakarra da, eta, legeari jarraikiz, finantza-transkazioen kontratatzaileak identifikatzeko eta finantza arriskuen kudeaketa hobetzeko balio du mundu osoan. Espainiako zuzenbidearen arabera, Espainian Merkatu Erregistroari dagokio LEIa kudeatu eta jaulkitzea (www.justicia.lei.registradores.org)

BALDINTZA PARTIKULARRAK

Komisioak – Baloreen zaintza- eta administrazio-eragiketak

I. Kontuan idatzoharren bidez adierazitako baloreak mantentzea, zaintzea eta administratzea:

Espainiako merkatuetan negozia daitezkeen baloreentzat: % . Gutxienez: euro. Errenta aldakorarentzat efektiboa hartuko da kalkulatzeko oinarritzat, eta errenta finkoko baloreentzat, aldiz, hauen balio nominala.

Atzerriko merkatuetan negozia daitezkeen baloreentzat: % . Gutxienez: euro. Errenta aldakorarentzat efektiboa hartuko da kalkulatzeko oinarritzat, eta errenta finkoko baloreentzat, aldiz, hauen balio nominala.

Negozia ezin daitezkeen baloreentzat: %

nominalaren gainean. Gutxienez: euro. Kotizaziorik ez badago, nominala hartuko da kalkulatzeko oinarritzat.

II. Titulu fisikoak mantentzea, zaintzea eta administratzea:

Espainiako merkatuetan negozia daitezkeen baloreentzat: % nominalaren gainean.

Gutxienez: euro. Atzerriko merkatuetan negozia daitezkeen baloreentzat: %

efektiboaren gainean. Gutxienez: euro. Negozia ezin daitezkeen

baloreentzat: % nominalaren gainean. Gutxienez: euro.

III. Inbertsio Kolektiboko Erakundeetako (IICak) akzioak edo partaidetzak zaintzea eta erregistratzea.

Kontuen idatzietan (EFT eta SICAV) ordezkaturako Espainiako IICen akzio edota partaidetzen zaintza: % efektiboaren gainean. Gutxienez: euro.

CNMVan erregistraturako atzerriko IICen akzio edo partaidetzak zaintzea eta erregistratzea: % efektiboaren gainean. Gutxienez: euro.

CNMVan erregistratuta ez dauden atzerriko IICen akzio edo partaidetzak zaintzea eta erregistratzea: %efektiboaren gainean. Gutxienez: euro.

Atzerriko IICen saldoen alta edo baja tramitatzea, saldo edo posizioak erregistratu behar diren merkaturatzailea aldatzeagatik: % efektiboaren gainean. Gutxienez: euro, eragiketa bakoitzeko.

IV. Baloreak beste erakunde batera intsuldatzea:

Espainiako merkatuetan negozia daitezkeen baloreentzat: % .

Gehienez euro. Atzerriko merkatuetan negozia daitezkeen baloreentzat: %

. Gehienez euro. Negozia ezin daitezkeen baloreentzat: euro balore klase

bakoitzeko.

Hitzartutako komisioak balore mota bakoitzari aplikatuko zaizkio (ezaugarri eta eskubide berak dauzkaten jaulkitzaile baten balore multzoa). I., II. eta III. ataletan jasotakoak urteko ehuneko gisa adierazita daude. Baloreak urte bete baino gutxiagoan egon badira gordailuan, aplikatu beharreko komisioa balore horiek gordailuan egondako egun-kopuruari dagokion parte proportzionala izango da. Gutxienerako zenbatekoa, halaber, baloreak gordailuan egondako egun-kopuruarekiko

proportzioan aplikatuko da. Sortzapen-epealdian erregistratutako baloreetako akzio edo partizipazioen eguneroko saldo efektiboen batez bestekoa izango da kalkulatzeko oinarria. Errenta finkoko baloreen kasuan,

hauen balio nominala hartuko da kalkulatzeko oinarri gisa. Aldizkako komisio hauek seihileko natural bakoitzaren amaieran edo gordailua deuseztatzen den momentuan likidatu eta ordainduko dira, dagokien proportzioan. Gainerako komisioak dagokien eragiketa burutzen den egunean sortu, likidatu eta ordainduko dira.

IV. atalean jasotako komisioak ehuneko gisa emanak daude; gainera, eragiketa bakoitzeko gehieneko zenbatekoa ezarri beharra dago eta ezingo da gutxienezko ezarri. Errenta aldakorreko baloreen kasuan, intsuldaketa burutzen den datako intsuldatutako baloreen balio efektiboa izango da kalkulatzeko oinarria. Errenta finkoko baloreen kasuan, hauen balio nominala hartuko da kalkulatzeko oinarri gisa. Komisio horiek, dagokion operazioa burutzen den egunean sortu, likidatu eta ordainduko dira.

Atzerriko merkatuetan negoziatu daitezkeen baloreen tarifak aplikatuko zaizkie balore nazionalai, betiere gordailuzain atzerritar baten zaintzapean gordailutzea eskatu badu bezeroak, edo hala egitea beharrezkoa bada eragiketa burutzeko.

Komisioak – Merkatuetako bitartekaritza-eragiketak.

I. Bitartekaritza-eragiketak errenta aldakorreko baloreen merkatuetan:

Espainiako merkatuetan. Jasotzea, igortzea, burutzea eta likidatzea: % efektiboaren gainean. Eragiketa bakoitzeko euro, gutxienez.

Atzerriko merkatuetan. Jasotzea, igortzea, burutzea eta likidatzea: % efektiboaren gainean. Eragiketa bakoitzeko euro, gutxienez.

II. Eragiketak errenta finkoko baloreen merkatuetan:

Espainiako merkatuetan. Errenta finkoko baloreen erosketak edo salmenta: % nominalaren gainean. Eragiketa bakoitzeko euro, gutxienez. Espainiako Zor Publikoko eragiketei dagozkienak izan ezik

Atzerriko merkatuetan. Errenta finkoko baloreen erosketak edo salmenta: % nominalaren gainean. Eragiketa bakoitzeko euro, gutxienez.

Balore klase bakoitzeko burututako eragiketa bakoitza eragiketa bat izango da, agindu bakarra izan bada ere. Eskubide eta ezaugarri berak dituen jaulkitzaile baten baloreen multzoa da balore klasea. Tarifa hauek ez daude euroa ez diren dibisa -rukeei aplikatu beharreko tarifei lotuak. Tarifei dagozkien zergak aplikatuko zaizkie.

Hemen adostutako komisioez gain, gordailututako baloreentzako agintzen dituen eragiketa zehatzek komisioak eta gastuak sortuko dituzte, zeinak Balore Merkatuaren eragiketa eta zerbitzuetarako gehieneko Tarifen Informazio Liburuxkan ezartzen diren: www.bancosantander.es.

BALDINTZA OROKORRAK

LEHENA.- Finantza-tresnen zorroaren funtzionamendua.

Bankuak finantza-tresnen zorroan islatuko ditu berak zaintzeko, erregistratzeko edo administratzeko titulu, ziurtagiri, kontuko idazpen edo beste mota bateko baloreak. Bezeroak balore horien gaineko eskubidea behar bezala egiaztatu beharko du.

Finantza-tresnak tituluen bitartez edo bestelako euskarri fisiko baten bitartez ordezkatuta egonez gero, Bezeroak Bankuari entregatuko dizkio. Tituluak beste erakunde batean gordailututa badaude, Bezeroak Bankuari entregatu beharko dio tituluen intsuldaketarako beharrezko dokumentazioa.

Finantza-tresnak kontuko idazpenen bitartez ordezkutzen badira, dagokion kontabilitate-erregistroan Bezeroaren aldeko inskripzioa egiteko konpromisoa hartzen du Bankuak (xehetasun-erregistroa). Beste Erakunde bateko kontabilitate-erregistroan erregistratutako finantza-tresnak badira, Bezeroak Banku bereko edo zerbitzua kontratatuta duen erakundearen erregistroetara ekartzeko eskaera egingo du. Kontratu eredu honen xede diren finantza-tresnak Bezeroak Bankuari emandako finantza-tresnen agindu baten burutzapenaren ondorio badira, finantza-tresna horiek tresna-zorroan egongo dira; horrek ez du esan nahi finantza-tresnetatik eratorritako eskubideak guztiz bereganatuko direnik, izan ere, merkatuaren arauen arabera, aginduaren likidazioaren ondoren kontabilitate-erregistroko idazpenetan zilegituta ageri den pertsona joko baita legezko titular bakartzat. Bezeroak etorkizunean Bankuaren bitartez eskura ditzakeen finantza-tresnak gordailu edo erregistro gisa sartuko dira eredu honen bitartez eratutako finantza-tresnen zorroan, besterik adierazi ezean. Edonola ere, aipatu zorroan gordailutu edota erregistratuko dira gauzazko dibidenduen ordainketak edo finantza-tresnen harpidetzen, trukeen edo bihurketen emaitzak.

Aurreko hiru hipotesietan, kontratua burututzat joko da finantza-tresnak benetan Bankuan zaintzan geratzen direnean, Bankuaren ardurapeko xehetasun-erregistroan erregistratu eta gero.

Bezeroak jakinarazi zaizkion eragiketa, likidazio eta saldo guztiei bere onespina eman diela ulertuko da hamabost egun naturaleko epean inolako erreklamaziorik aurkezten ez badu.

Bezeroaren finantza-tresnen banakako erregistroa hirugarrenen esku jarri ahal izango du Bankuak; hala ere Bezeroaren aurrean, horien zaintzaren eta administrazioaren ardura bere gain hartuko du, legeetan ezarritakoa salbu.

BIGARRENA.- Finantza-tresnen zorroa eta lotutako kontua.

Zaintza- eta administrazio-zerbitzu hau emateko beharrezkoa da finantza-tresnen zorro bat (eta hala badagokio, baloreen kontu zorroa ere) irekitzea eta eskudiruzko kontu bati lotuta egon behar du, zeina kontratu honetako baldintza partikularretan adierazitakoa izango den. Bankuak lotutako kontura ordainduko ditu salmenten zenbatekoei edo itzulerei, interesei, esku-dirutako dibidenduei, ekarpenen nominalaren eta biribilketen itzulerei edota zaindutako, erregistratutako eta kudeatutako finantza-tresnen eratorriak diren eragiketen etekinei dagozkien zenbatekoak. Kontu horretan bertan kargatuko dira Inbertsio Kolektiboko Erakundeen (IIC) harpidetzari dagozkion akzio, obligazio, bonu, harpidetza-eskubide eta bestelako baloreen zein finantza-tresnen erosketari eta harpidetza, truke eta konbertsioei dagozkien zenbatekoak.

Lotutako kontuen titularrek, finantza-tresnen zorroaren titularrak ez badira, berariaz onartzen dute, kontratu hau sinatzean berariaz onartzen dute finantza-tresnen zorro horretarako itundutako erabilera-modua eta berariazko baimena ematen dute lotutako kontuan zorroaren titular bakoitzak bere kasa egin ditzakeen eragiketak islatzeko, erabilera-modua bereizigabea denean.

Adingabeak titular dituzten finantza-tresnen zorroak eta haiei lotutako kontu korronteak beren legezko ordezkariak/ek ireki beharko ditu/zte. Horretarako, adingabeen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia eta, 14 urte baino gehiago izanez gero, Nortasun Agiri Nazionala ere aurkeztu beharko dira, baita beharrezkoa izan daitekeen beste edozein dokumentu ere, kasu zehatzari aplikagarri zaizkion xedapenak betez.

Bankuak finantza-tresnen zorpeko erosketa aginduak errefusatu ahalko dituela jakinazten zaio Bezeroari. Bezeroak hainbat salmenta eta erosketa agindu ematen badiu jarraian, salmenten edo erosketen ondoriozko eskudituaren kargura, aginduak egikaritu ahal izateko alde aurretik erregistratu beharko dira eskuratutako zenbatekoak edo finantza-tresnak edo baloreak ondoren besterendu ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Titulartasun anizkoitza.

3.1.- - Kontratu hau sinatzean, titular bakoitzak (Bezera), bat baino gehiago badaude, bertan xedatutako baldintza orokorrak eta partikularrak onartzen ditu. Kasu horretan, titulartasun berarekin eta finantza-tresnen zorro bererako bakarrik kontratatu ahalko dira produktuak.

Bezeraen egokitasuna edo komenigarritasuna ebaluatzeko, titular bat baino gehiago badaude, Bankuak ustez ezaguera eta esperientzia gehien dituen titularra hartuko du kontratu honen lehen titular; betiere titularkide guztiek Bankuari esku-hartzaileen ordenaren aldaketa eskatzeko eskubideari kalterik eragin gabe, eskera hori idatziz edo beste modu fede-emaile batean egin beharko da, jasota gera dadin.

3.2.- Solidaritatea. Titularrak bat baino gehiago badaude, modu solidarioan erantzun beharko dute Bankuaren aurrean, kontratu honetatik eratorritako betebeharrak guztiengatik.

3.3.- Finantza-tresnen zorroaren erabilera. Aurkako berariazko eta idatzizko itunik ez bada, titularretako edozeinek kudeatu eta erabili ahalko ditu finantza-tresnak, eta horietatik eratorritako eskubideak gauzatu ere, kontratu hau ezeztatzea barne. Bere sinadura baino ez da beharko horiek burutzeko, eta Bankuari egoki diren jarraibideak ematea.

Bezeraok pertsona bat edo gehiago baimendu ahal izango ditu bere finantza-tresnen zorroa erabil dezaten, horretarako jarraibide egokiak ematen badizkio Bankuari, idatziz. Baimendutako pertsonen jardunerako mugapenik zehazten ez bazaie, Bezeraok bezain beste ahalmen daukatela ulertuko da, zaintzan utzitako edo erregistratutako tresnak saldu, trukatu edo itzultzeko ahalmena barne.

Adingabeen titulartasunekoak diren finantza-tresnen zorroaren erabilera adingabearen legezko ordezkariak bakarrik egiaztatu ahalko du, betiere guraso-ahala ukatu ez bazaio eta ordezkaritza hori burutzeko desgaituta ez badago.

Kasu bakoitzean, adingabearen legezko ordezkariak/ek emandako salmenta-, truke-, bihurtze-, itzultze- edo insuldatze-aginduek zenbatekoa ondasun edo balore seguruetan berrinbertitzeko lege eskatutako betekizunera egokitu eta atxiki beharko zaizkio; legezko ordezkariak badaki eta bere eginbidean errespetatzeko konpromisoa hartzen du eta Bankuak ez du horren aurrean inolako erantzukizunik izango, Bezeraen eta legezko ordezkariaren/ordezkarien artean egoki izan daitezkeen ekintzei kalterik egin gabe.

3.4.- Ahalordetzeak. Titularren ahalordedunak edo ordezkariak badaude, titularrek eta ahalordedunek / ordezkariak berariaz onartzen dituzte kontratu honen baldintzak eta beren ahalmenak eta ordezkaritza indarrean daukela ulertuko da Bankuak horien aldaketaren, baliogabetzearen edo azkentzearen jakinarazpen fede-emailea jaso arte.

LAUGARRENA.- Finantza-tresnen zaintzaren eta administrazioaren luzapena.

Bankuak zaindu, erregistratu, edo administратu beharreko balore edo finantza-tresnak Bezeraen alde erregistratuta edo bere izenera zaintzan daukan eta Bankuak Bezera aldian behin igortzen dion posizio-laburpenean islatzen diren horiek dira. Posizio-laburpena Bezera Bankuari emandako aginduari jarraikiz, edo gordailuaren edo erregistroaren administrazioaren ondorioz jakinaraziko zaio.

BOSGARRENA.- Gordailututako edo administratutako finantza-tresnen zaintza.

5.1. Bankuak, zintzasunez, profesionaltasunez, inpartzialtasunez eta Bezeroaren interesen alde jokatzeko beti, tituluen bitartez edo bestelako edozein euskarri fisikoren bitartez edo legez ordezkatzeko beste moduren baten bitartez ordezkatzeko tresnak zaintzeko betebeharra du, baita, hala badagokio, kontuko idazpenen bitartez ordezkatzeko tresnen inskripzioa mantentzekoa ere.

Bankuak ez du erantzukizunik izango zaintza, erregistro edo administrazio-kontratu ereduaren xede diren tresnek halabeharrez paira ditzaketen merkatuaren funtzionamenduaren edo nahitaezko arrazoiengatik zein ezbeharrengatik izandako galera edo narriaduren aurrean.

Baloreen Merkatuko legeriari jarraikiz, Bezeroari jakinarazi zaio, likidazioaren ostean, merkatuko kideen, kontrapartida nagusiko erakundeen eta gordailuzain nagusien aldeko finantza bermearen eskubide bat dagoela baloreen edo eskudiruaren gainean, eskudirua edo baloreak aurreratu dituztenean likidazio horri aurre egiteko, tartean ez-betetze bat edo bezeroen lehiaketa bat dagoenean. Bermeak baloreen prezioa, efektiboa eta isun edo zigorren zenbatekoa hartzen ditu.

5.2. Bankuak Bezeroari jakinarazten dio nazioarteko baloreen zaintza zerbitzua CACEIS BANK SPAIN S.A.U.-ri eskuordetu zaiola, beraz, kontratuaren sinadura datatik aurrera, CACEIS BANK SPAIN S.A.U. izango da nazioarteko baloreen zaintza zerbitzua emango duen erakundea. Balore nazionalen kasuan, Bankua izango da Bezeroari zaintza zerbitzua emango diona, zaintza eta administrazio kontratu eredu honen arabera zaindutako eta administratutako balore nazional horien banakako erregistroaren ardurarekin batera.

Nazioarteko baloreen zaintzaren eskuordetzeak ez du aldatuko Bezeroaren eta Bankuaren artean kontratu eredu honetan adostutako baldintzarik.

Beraz, zerbitzua eskuordetu arren, Bankuak zaintzaren eta kudeaketaren erantzukizuna izaten jarraituko du, eta Bankuak Bezeroaren aurrean dituen eskubide eta betebeharrak ez dira aldatuko. Halaber, eskuordetze horrek ez du gastu gehigarririk sortuko Bezeroarentzat eta ez ditu adostutako komisioak aldatuko.

Bezeroari jakinarazi zaio Bankuak CACEIS BANK SPAIN S.A.U.-ri ordaindu egingo diola eskuordetutako zorroen kudeaketa-zerbitzuarengatik eta horrek ez diola Bezeroari kostu gehigarririk ekarriko.

Hauek dira Bankuak nazioarteko baloreen zaintza zerbitzua eskuordetu dion azpizaindariaren datuak:

CACEIS BANK SPAIN, S.A.U., egoitza soziala Paseo Club Deportivo, Nº 1, Edificio 4, Planta 2ª, 28223, Pozuelo de Alarcónen duena, eta A-28027274 IFZ zenbakiduna, Madrileko Merkataritza Erregistroan erregistratuta dago 7100 Orrian, 2. Folioan, 261 Liburukuan, 8. Atalean, 1, inskripzioan.

CACEIS BANK SPAIN, S.A.U. finantza-tresnen zaintza zerbitzua emateko baimendutako kreditu erakundea da eta behar bezala eratuta dago Espainiako legeen arabera, Espainiako Bankuak (www.bde.es) ikuskatzen du eta haren erregistroetan inskribatuta dago 0038 zenbakizko kodearekin.

CACEIS BANK SPAIN, S.A.U., erakundea Kreditu Erakundeen Gordailuen Berme Funtzari atxikita dago, haren araudi espezifikoa xedatutako baldintzen arabera.

5.3. Titularrari jakinarazten zaio Espainiar lurraldean helbideratutako edo finkatutako sozietate kudeatzaile baten eta Bankuaren arteko hitzarmenak hala zehazten duenean, Espainian eratutako Inbertsio Kolektiboko Erakundeen (IIC) akzioei eta partaidetzei dagokienez, merkataritza xedeko funtsaren elkarte kudeatzailearen partaideen erregistroan sartu ahal izango direla Bankuaren bitartez, partaideen konturako entitatearen izenarekin. Kasu horretan, Bankuak partaideak identifikatzeko erregistroa banaka egingo du, bere saldoarekin eta partaidetzen balioarekin, indarrean dagoen legeria jarraituz.

SEIGARRENA.- Finantza-tresnen gordailuaren administrazioa.

Aurretiaz eta idatziz aurkako jarraibiderik jaso ezean, Bankuak baimena izango du finantza-tresnen edo erregistro-administrazio baten ohiko funtzionamenduak berezkoak dituen egintzak eta eragiketak egiteko, tresna horiek egoki zaizkien eskubideei eusteko, aplikagarri zaizkien legezko xedapenak betez. Eragiketa hauen artean, Bankuak honakoak burutuko ditu: a) Dagozkion interesak, kupoiak, errendimenduak edo dibidenduak kobratzea, edo printzipala kobratzea salmenta, itzulera partzial

edo erabateko amortizazio kasuan, tituluen aurkezpen edo entregarekin hala badagokio eta, kasuaren arabera, dagokion inskripzioa ezeztatuta edo erregistroko baja izapidetuta; b) Derrigorrezko eragiketak

burutzea, hala nola trukeetarako tituluak aurkeztea, aldaketak, ordezkapenak, kapitalaren areagotze edo murrizteen ondoriozko zigilatzeak, hala badagokio, edo dibidendu pasiboen edo dagozkien kapital deien ordainketa, aldeztu aurretik helburu horretarako funtsak hornituta, nahitaezko salmentak, kapitalaren areagotze liberatuak, etab.; c) Bezeroari jakinaraztea eragiketa boluntario edo hautazkoak, beharrezkoak diren jarraibideak eskatuta, jarraibide horiek gutxienez ere Bankuaren eskuetan egon beharko direlarik kotizazio Merkaturan negoziatzeko bi egun balioduneko aurrerapenarekin eragiketa gauzatu aurretik, eragiketa hori ezarritako epe barruan burutu ahal izateko; bestela, Bankuak baimena izango du baloreen harpidetzei

dagozkien eskubideak saltzeko eskudiruzko ordainketarekin, betiere negoziagarriak badira eta Merkaturik bada, edo baimenduta egongo da doako esleipenetik eratorritako balore berriak jasotzeko, gainerako

eskubideen salmenta korrelatiboarekin, hori guztia, betiere, Bezeroaren interes onenean bada; Bankuak harpidetza eskubideak ez saltzea erabaki ahalko du eskubide horien eskualdaketa zenbatekoa Merkatuak

aplikatu beharreko tasa eta kanonen kostuaren azpikoa bada.

Bankuak ez du erantzukizunik bere gain hartuko Bezeroari egotz dakiokeen eta Bezeroak behar bezala eta garaiz zuzentzen ez duen edozein akats edo omisioren kasuan.

Bankuak bere gain hartzen ditu aurrez aipatutako betebeharrak, aipatzen dituen eragiketei dagokienez; beti ere erakunde jaulkitzaileak edo kudeatzaileak modu ofizialean argitaratzen baditu eta, egoki denean, azpizaindariak edo ahalguztariak behar bezala jakinarazten badizkio; bestela, Bezeroak Bankuari ohartarazi beharko dio, jakin dezan, egoki diren jarraibideak emanez.

Berariaz adierazten da eta Bezeroak onartzen du Bankuak, indarrean den araudiari jarraikiz, ez duela exekututako balore negoziagarriak dituen edozein motako salerosketa-eragiketarik buruz Bezeroak emandako agindurik, baloreen lehenetsitako harpidetza-eskubideen merkaturako salerosketa-eragiketak barne, Bankuak Bezeroaren nazionalitateko herrialdeari dagokion nortasun- agiririk ez badauka, Bezeroa pertsona fisikoa denean; edo entitate juridikoaren kode identifikatzaile bakarra (LEI kodea) ez badauka, Bezeroa pertsona juridiko izaera daukanean.

ZAIZPIGARRENA.- Atzerriko tresnekin egindako eragiketak.

Kontratu eredu hau sinatuz, Bezeroari jakinarazten zaio eta berariazko baimena eta adostasuna agertzen du kontratu honen babespean Bankuari zaintzan utzitako finantza-tresnekin edo negozioa daitezkeen baloreekin atzerriko merkatuetan eragiketarik eginez gero eta horietan kontu globalak erabiltzea ohiko praktika bada, aipatutako balore horiek finantza-tresnen jagoaren izenera irekitako "kontu global" batean gordailuan utziko dira, hau da, Bankuaren izenera (edo hartara izendatutako hirugarren baten izenera), "nazioarteko azpizaindari" batean (aurrerantzean, Azpizaindari) eta bertan zainduko dira bezero anitz horiei dagozkien baloreak. Kasu horretan, bai Bankuak bai izendatutako azpizaindarien ere, azaldutako zaintza-egitura osoan, finantza-tresna horiek beti bezeroarenak direla identifikatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte, Bankuarenak eta azpizaindarienak diren aktibo propioetatik bereizi daitezkeen. Horrez gain, edozein momentutan eta berehala jakin ahal izateko bezero bakoitzaren baloreen posizioa eta eragiketen egoera zeintzuk diren jakiteko beharrezko erregistroak gordeko dituzte Bankuak eta azpizaindarienak.

Aurrekoaz gain, Inbertsio Kolektiboko Erakundeen (IIC) kasuan, kontratu hau sinatu duen Titularrari jakinarazi zaio eta baimena ematen du IIC bakoitzeko akzio edo partaidetzak kontratu honen arabera sinatzeko, eta arestian aipatu diren arrazoiak direla-eta, dagokion IICko entitate kudeatzailearen "kontu orokor" batean erregistra daitezke "ahaldunorde" gisa jarduten duen entitatearen izenean (Bankua edo horretarako esleitutako hirugarrena, aurrerantzean "Ahaldunorde").

Ahaldunordeak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu IIC bakoitzaren akzio edo partaidetzak beti haiei dagozkien partaide/akziodunarenak direla identifikatzeko, eta Ahaldunordearen aktiboei edo Ahaldunordeak bere izenean Ahaldunordea ez den beste norbaiten izenean erregistratuta dituenetatik ondo bereizita, eta partaide/akziodunak IICan duen posizioa uneoro eta berehala ezagutzeko beharrezkoak diren barne-erregistroak gordeko ditu harek.

Atzerriko finantza-tresna negoziagarriak zaintzeko kontu globalak erabiltzeagatik, atzerriko legediari jarraikiz, dagokion erregistro sistemaren aurrean eta, hala badagokio, balorearen jaulkitzailearen aurrean, dagokion erregistro sistemaren aurrean eta tokiko agintaritzaren eskudunen aurrean, tresnen titulartasuna eta atxikitako eskubideak baliatzeko legitimazio kontu globalaren titularrari egokitu litzazkioke (eta ez Bankuaren bezeroari), horrek finantza-tresnen arloan dakartzak eraginekin. Bezeroak bere jabetzako tresnen gaineko eskubideak baliatu ahal izateko, Bankuak azpizaindariari jakinaraziko dizkio Bezeroaren atzerriko tresnen inguruko aginduak, eta efektiboa Bezeroaren kontura zordundu edo ordainduko du edo eragiketa bakoitzeko baloreak Bezeroaren kontuan abonatuko ditu. Tresnei atxikitako eskubide politikoak baliatu ahal izateko, Bankuak Bezeroaren jarraibideak jaso eta dagokion azpizaindariari jakinaraziko dizkio. Berariaz adierazten da, aipatu diren eskubide politikoak gauzatzean, besteak beste, atzerriko baloreen jaulkitzaileek antolatutako batzar orokorretan Bezeroaren botoari buruzko jarraibideak ematea, Bankuaren aldeko komisio bat sortuko dela eta zenbatekoa Bankuak zerbitzua emateko sortzen dituen benetako kostuekiko proportzionala izango da. Komisio hori Bankuaren webgunean www.bancosantander.es argitaratutako eragiketen gehieneko tarifa eta baloremerkatuetako zerbitzuei buruzko informazio liburuxkan zehazten da, eta likidatu aurretik jakinaraziko zaio Bezeroari.

Modu berean, Bezeroari jakinarazten zaio atzerriko finantza-tresnen zaintzaren esparruan ohikoa dela eta nazioarteko azpizaindarien beren zerbitzuak emateko eskatzen duten baldintza dela dagozkien kontratuetan baloreen atxikipen-, berme, burutzapen- edo erabilpen-eskubideak aitortzea, kontratuko betebeharrak ekonomikoak urratzearen aurrean bere arriskua bermatzeko.

Halaber, Bezeroari jakinarazi zaio atzerriko finantza-tresnen zaintzarako kontu globalak erabiltzen direnean gerta daitekeela tresnak aldi baterako erabilgarri ez egotea, edo atxikitako eskubideak momentu jakin batean baliatu ezin izatea. Kasu hauetan, baloreek okerrera egin dezakete eta baloreen galdu daitezke eragiketa hauetatik eratorritako arrisku espezifikoaren ondorioz eta finantza-tresnak eta horien zaintza hirugarren Estatu baten ordenamendu juridikoaren menpe geratzeko aukeraren ondorioz, zenbaitetan Europar Batasunetik kanpoko Estatuak izanda, hori guztia jarraian xedatutakoaren arabera. Bezeroek Bankuak irekitako kontuan gordailuan utzitako atzerriko finantza-tresnen gaineko eskubideak edo finantza-tresna horien operatibari atxikitako funtsen gaineko eskubideak, jabetza eta kaudimengazari dagokionez, ezberdinak izan daitezke Europar Batasuneko Estatu Kide bateko legeriari atxikita egonez gero aplikatu beharrekoekin alderatuta.

Aipatu diren kontu globalen erabileratik eratorritako arriskuak kontu globalaren titularraren (Bankua edo izendatutako azpizaindaria) kaudimengabezia gertatuz gero gauzatuko lirateke; kasu horretan, kaudimengabezia prozesuari aplikagarria zaion legerian xedatutakoaren arabera, azaldutako bereizketa neurriak nahikoa ez izatea gerta liteke Bezeroaren finantza-tresnak guztiz identifikatzeko, tresna horiek kaudimengabearen ondarearengandik bereizteko eta tresna horiek jabeari berehala itzultzeko edo beste zaindaria edo azpizaindi bati eskualdatzeko, baldin eta:

(i) aipatutako legeriak finantza-tresnen titulartasun fiduziariora aitortzen ez badu (Bankuarena edo nazioarteko azpizaindari batena izan, bere izen propioan baina beste norbaitentzako, kasu honetan bezeroentzako) eta, horren ondorioz, dagokion agintaritzak kontu globalean gordailuan utzitako finantza-tresnak hirugarrenenak ez direla ulertzen badu, kaudimenik ez duen erakundeenak baizik, kontuaren titularra denez; (ii) porrota aitortzeko unean, erakunde kaudimengabeak (kasu honetan, nazioarteko azpizaindariak) bere izenera tokiko erregistro-sisteman bezero guztientzat zaintzan dauzkan finantza-tresna guztien saldoa estaltzeko behar adina balore erregistratuta ez badauzka eta bakoitzari dagokiona itzultzeko modurik ez badu, saldoaren banaketari buruzko araudia eta kaudimengabezia arautzen duen legeriak ezarritako kredituen aitorpenari eta lehentasunari jarraituko zaio berreskuratu daitekeen kopurua erabakitzeko.

Arrazoi berberengatik, eta finantza-tresnei eta bere zaintzari eta kaudimengabezairi buruzko prozesuari aplikatu dakiekeen atzerriko legeriak ezartzen duenaren arabera, egoera konpontzen den bitartean eta bezeroaren eskubidea aitortzen den arte (denboran atzeratu liteke-eta), kaudimengabeziaren erruz baliteke ezin izatea baloreak berezkoak dituen eskubideak aitortzea eta gauzatzea, esate baterako erreklamazio-ekintzak burutzea; horretarako beharrezkoa izan daiteke kontu globalaren titularraren laguntza (eta hori ukatu egin daiteke, denboran atzeratu daiteke edo gerta daiteke teknikoki ezinezkoa izatea ere).

Azkenik, Bezeroari jakinarazten zaio, Europar Batasuneko legeriari jarraikiz, kreditu-erakundeetan irekitako kontuetako bezeroen finantza-tresnen gordailuek berme-sistemen babesa dutela, Estatu Kide bakoitzeko legeriek ezarritako baldintzak eta mugak bete. Europar Batasuneko herrialdeetatik kanpo, gordailu horiek ez dira egoten berme sistema baliokideen edo antzekoen bitartez babestuta.

Arrisku horien jakitun, Bezeroari jakinarazten zaio, halaber, bezeroen aktiboak babesteari buruzko Espainiako legeriari jarraikiz, Bankuak ez duela bermatzen eta ez duela finantza-tresnak itzultzeko betebeharririk izango, nazioarteko azpizaindarien porrot egin edo kaudimen gabe gertatzen badira; bere ardura izango da, azpizaindarien erabilerari eta kontu globalen erabilerari dagokionez, nazioarteko azpizaindariak behar bezala ebalutu, aukeraketu, kontratatu, mantendu eta kontrolatzea (berez ala izendatutako azpizaindari baten bitartez), horretarako kaudimen, operazio- edo legezko arrisku eta zerbitzuaren kalitateari buruzko irizpide eta betekizun oso zorrotzak jarraituz, eta bezeroei modu argi, osatu eta ulergarrian Bankuan irekitako kontuetan zaintzeko atzerriko baloreak kontratatu eta gordailuan uztearen ondorioz etor daitezkeen arriskuak bere gain har ditzaten. Bezeroak balizko arrisku horiek edo azpizaindariatik irekitako kontu globalen funtzionamendua bere gain hartu nahi ez baditu, ezin izango du mota honetako kontuak erabiltzea eskatzen duten finantza-tresnekin jardun, arestian azaldu bezala, halabeharrez mota honetan kontuak eraibili behar dira-eta.

Informazio artatsua denez eta denborarekin aldatu daitekeenez (Bezeroaren inbertsio-erabakien arabera erabil daitezkeen nazioarteko azpizaindarien kopuru itxuraz geroz eta handiagoarengatik), bezeroen aktiboen babesari buruz indarrean dagoen araudia betetze aldera, Bankuak eskura jartzen dio nazioarteko azpizaindari bakoitzaren nortasun, jatorriko herrialde, kreditu-kalifikazio, aktiboen segregazioari buruzko betekizun eta arrisku eta, kasuan-kasu, kontu globalen erabileratik eratorritako arrisku espezifikoari buruzko informazio osatua, eguneratua eta zehatza, atzerriko finantza-tresnak kontratatu eta bere kontuan gordailuan jarri baino lehen arretaz kontsultatu eta azter dezan eskatuz.

Informazio hori webgune honetan aurki daiteke: www.bancosantander.es, "Información legal: MiFID" atalean, "Información de Subcustodios" eremuan sartuta.

Webgune horretan jakinarazten dira Bankuak kontu globalak mantentzeko hautatutako azpizaindariak,

kontuaren titularraren herrialdea, rating-a eta identifikazioa adierazten dira. Halaber, berriaz aipatzen dira

bertan hautatutako azpizaindariaren esku dauden Bezeroen finantza-tresnen eta azpizaindariaren jabetzakoak diren finantza-tresnen arteko bereizketa eta kontu globalean gordailutzearen ondoriozko arriskuak.

Bezeroak atzerriko finantza-tresnei buruzko eta aukeratutako azpizaindariari buruzko informazio zehatza lortu ahal izango du, egoki diren baloreen jaulkipen-herrialdearen arabera.

ZORTZIGARRENA.- Informazioa.

8.1. Bankuak Bezeroari eman beharreko informazioa. Balorazioa.

Bankuak idatziz eta hitzartutako euskarrian gordailututako, erregistratutako edo administratutako finantza-tresnei buruzko informazioa helaraziko dio Bezeroari, eta harengandik, egoki denean, berariazko jarraibideak jasoko ditu. Bankuak Bezeroari ondoriozko posizioaren berrespen-jakianarazpena edo txostena bidaliko dio, Bezeroak zaintzan utzitako, erregistratutako edo administratutako finantza-tresnen osaera aldarazten duen eragiketaren bat egiten duen aldi oro. Gainera, Bankuak Bezeroari finantza-tresnen zorroaren laburpena bidaliko dio; bertan Bankuan dauzkan finantza-tresnen egoeraren berri emango dio, baita horien saldo eta errendimendua ere, eta horrek bere zerga-betebeharrak betetzeko erabili ahal izango du. Aurrekoa gorabehera, Bezeroak idatziz eskatzen dion bakoitzean eta lege ezarritako epearen barruan, Bezeroak kontratatutako eragiketen inguruko informazio guztia emango dio Bankiak, izan ere, burututako eragiketa guztiak erregistroan gordeko ditu Bankuak eta artxibatuta izango ditu jasotako aginduen egiaztagiriak.

Finantza-tresnen zorroaren laburpena da, akatsik gertatu ezean, bertan jasotzen diren finantza-tresnen erregistroari eta zaintzari buruzko informazioa partekatzeko bidea; Bezeroak jasotako azken laburpenak edo txostenak egun horretan indarrean dagoen errealitatea islatzen duela ulertuko da, eta lehenagoko laburpenak ordeztu eta ezeztatuko ditu. Laburpen hori dokumentu izendun eta besterenezina da eta, beraz, ezin da besterendu edo endosatu Bezeroak Bankuari zaintzan utzitako, erregistratutako edo honek administratutako finantza-tresnak leheneratzea eskatu ahal izateko nahikoa da, baina horrek ez du galaraziko Bezeroak bestelako bitartekoak erabiliz ere egiaztatze modua izatea.

Hori guztia kontabilitate erregistroaren ardura duen erakundeak jaulki beharreko legitimazio ziurtagiriari kalterik eragin gabe, kasuaren arabera. Kontabilitate erregistroko idazpenetan pertsona legitimatu gisa ageri dena izango da legebidezko titularrak, eta, pertsona hori eta baloreetatik eratorritako eskubideen onuradunekin edo baloreen gainean eratutako zamen edo eskubide erreal mugatuen onuradunak izango dira jaulkipena eskatzeko ahalmena izango duten bakarrik.

Beharrezkotzat jotzen denean, eskualdaketarako eta kontuko idazkinen bidez adierazitako baloreetatik eratorritako eskubideak baliatzeko edo hauen gainean eratutako eskubide erreal mugatuak edo zamak baliatzeko legitimazioa ziurtagiri bidez egiaztatu ahalko da. Ziurtagiri horietan ageri beharko da baloreen titularraren nortsuna eta, kasuaren arabera, eskubide mugatuak edo zamak, erakunde jaulkitzailearen eta jaulkipenaren identifikazioa, baloreen klasea, balio nominala eta kopurua eta baita jaulkipen data ere. Halaber, ziurtagirietan adieraziko da baloreen jaulkipenaren xedea eta indarraldia.

Ziurtagiriak saldo bakoitzean barne hartutako balore guztienak edo batzuenak bakarrik izan ahalko dira. Baloreak zati baten ingurukoak soilik badira, jaulkipenaren momentuan baloreak inskribatuta dauden kontuan dagokien bezala banakatuko dira eta hala mantenduko da ziurtagiria itzuli edo iraungi arte.

Ezingo da ziurtagiri bat baino gehiago jaulki balore bererako eta eskubide berak baliatzeko. Ziurtagiriak emango dituen eskubide bakarrik legitimazioarekin lotutakoak izango dira, beraz, ziurtagiriaren arabera burututako xedapen egintzak deusezak izango dira.

Jaulkitako ziurtagirian aipatutako baloreen saldoa ibilgetuta geratuko da eta ezingo da eskualdaketarik edo zamarik izapidetu, ez eta hauei dagozkien inskripzioak burutu ere, ziurtagiriak itzuli arte, betearazpen judizial edo administrazioetatik eratorritako eskualdaketak badira salbu. Itzulera obligazioa bertan behera geratuko da ziurtagiria baliorik gabe geratzen denean.

Bezeroak badaki Bankuari dagoeneko emandako informazioaren kopiak jaulkitzea eskatuz gero, dagokion komisioa aplikatuko zaiola.

Bezeroak berariazko baimena ematen dio Bankuari berari zuzendutako informazioa paperean edo papera ez den euskarri iraunkorrean eman diezaion. Horretarako, Bezeroari informazio hori gorde eta informazioaren xedeetarako egokia den epean zehar berreskuratu eta aldaketarik gabe erreproduzitzeko aukera ematen dioten bitarteko eta tresna egokiak erabiliko ditu Bankuak informazioa Bezeroari helarazteko.

Edonola ere, kontratu eredu hau sinatuz, Bankuak kontratu honen arabera emango diren zerbitzuei eta hornituko diren produktuei dagokien portaera arauan aurreikusitako informazioa helaraz diezaion baimen espezifikoaren ematen du Bezeroak, Bezeroaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio elektronikoko bitartez edo Bezeroak helburu hauetarako jakinarazitako gailu mugikorrera zuzendutako edozein jakinarazpen zerbitzu bidez.

Bankuak emandako informazioan merkatuko balorearen arabera zaindautako tresnek duten balorazioa gehituko da. Finantza-tresnen zorroan islatzen diren aktiboak baloratzeko, merkatuko prezioa edo balorea lortu ezin den kasuetan, egoera horrek eragiten dien eta finantza-tresnen zorroan zaintzen diren baloreen edo finantza-tresnen gutxi gorabeherako balorazio baten berri emango du Bankuak, eta balorazio hori zero ere izan daiteke, eta egoera horrek likidezia falta adieraz lezake.

Finantza-tresnen zorroan euroa ez den izendatutako finantza-tresnak egonez gero, jakinarazten dizugu lotutako kontua dibisatan kontratatuta baduzu, haren ondorioz sor daitezkeen komisioak eta gastuak eurotako kontrabalioren kalkulatu direla. Kontrabalia kalkulatzeko, dagokion komisioaren edo gastuaren ordainketa datan Bankuak eskuragarri dituen eta dagokion dibisaren indarrean dagoen truke tasa hartuko da aintzat, erosteko edo saltzeko prezioaren arabera, unean dagokiona. Aurrekoari kalterik eragin gabe, Bankuak onuragarria zaion beste edozein alde jaso dezake adierazitako truke tasaren eta ordainketa egiteko datan indarrean dagoen truke tasaren arteko aldaketa baten ondorioz. Egoera horren berri emango zaio beti Titularrari.

8.2. Bezeroak Bankuari eman beharreko informazioa. Kontratu eredu honen arabera zerbitzuak eman ahal izateko, Bezeroak emandako zerbitzurako beharrezkoa den informazio guztia emateko konpromisoa hartzen du Bankuak, aplikagarriak diren portaera arauen arabera. Bezeroak adierazten du eta baieztatzen du Bankuari kontratu honen sinadurarekin batera edota sinaduraren aurretik helarazitako informazio guztia egiazkoa, osoa eta zehatza dela. Bezeroak emandako informazioaz fidatuko da Bankua, informazioa zalantzarik gabe zaharkituta dagoela edo okerra edo osatugabea dela dakien kasuan salbu.

BEDERATZIGARRENA.- Kostuak, lotutako gastuak eta zergak.

Bezeroak Bankuari ordaindu beharko dizkio, inbertsio zerbitzuak emateko gauzatutako jardueragatik, finantza-tresnen zorroaren administrazio, zaintza, erregistro eta mantentze komisioak. Komisio hauen baldintzak, aldizkakotasuna, kalkulatzeko oinarria eta balorazio arauak dokumentu honen baldintza partikularretan zehazten dira, baita Bezeroak kontratu honen indarraldian zehar kontratatutako finantza-tresnekin lotuta agindutako edo bere kontura egindako eragiketek sor ditzaketen edozein kostu eta gastu ere, dagokion moduan jakinaraziko direnak eragiketa bakoitzean.

Bankuak finantza-tresna zorroari aplikagarri zaizkion komisioetan egin dezakeen aldaketa ororen berri eman beharko dio Bezeroari; Bankuak eman behar dion aldizkako edozein informazioetan gehi dezake. Bezeroak aldaketa onartzen ez badu, kontratu hau bertan behera utzi ahal izango du, Bankuari jakinarazita. Bezeroari aldaketa jakinarazten zaion unetik hilabete bat igarotzen bada, eta ez badu kontrako jakinarazpenik egin, aldaketa onartzen dela ulertuko da eta baldintza berriak aplikatuko dira berehala.

Alabaina, aldaketa onuratsua bada Bezeroarentzako, berehala aplikatuko zaizkio tarifa berriak.

Bezeroaren kargura izango dira kontratu honi jarraikiz bidalitako dokumentazioak sortzen duen posta-gastu guztiak, baita kontratu eredu honetatik eratorritako dagozkion betebeharrak sortu, bete edo amaitzeagatik sortzen diren zerga guztiak ere, legeek zehazten dutena beteaz.

Bankuak kontratu honek jasotakoaren arabera finantza-tresnak gomendatu edo saltzen dituenean, bezeroei alde aurretik jakinaraziko dizkie haren kostu eta gastuak, errepikatuak ala ez, emandako inbertsio-zerbitzuari lotuak, eta baita gomendatutako edo saldutako finantza-tresnari lotuak ere. Informazio horretan haiek ordaintzeko modua ere adieraziko da, zeina tresnari lotutako kontu korrontearen bitartez edo haren prezioan kargatuko den. Sortutako kostu eta gastuen inguruko informazioa zerbitzua kontratatzean adieraziko da, finantza-tresna edo zerbitzu motaren arabera, hura kontratatzen den unean, behin eta berriz, edo besterentze, likidazio, deuseztatze momentuan. Eurotan ez diren eragiketen kasuan, dibisa, truke tasari buruzko datuak eta aplikatutako kostuak agertuko dira informazioan.

Inbertsioaren funtsezko datuak ageri dituen dokumentu bat duten finantza-tresnak diren kasuan, beti emango da informazio hori, aseguruetan paketatutako edo oinarritutako txikizkarien inbertsio produktuei buruzko Europar araudian xedatutakoari jarraikiz, eta Inbertsio Kolektiboko Funtsen kasuan, armonizatutako inbertsio kolektiboko funtsei buruzko Europar Zuzentarauari jarraikiz.

Bankuak kostuen eta gastuen xehetasunik ez badu zerbitzua eman aurretik, bezeroei haien neurrizko balio balioetsia emango die.

Zerbitzua eman ostean, egindako eragiketaren guztizko kostuen eta gastuen berri emango die bankuak Bezeroei, eta Bezeroak gastu eta kostu horiek zehatz banakatzeko eska dezake.

Tresnak gomendatu edo merkaturatzean, edo bezeroari inbertsorearentzako funtsezkoak diren datuak biltzen dituen dokumentua eman zaionean eta inbertsio-zerbitzuak behin baino gehiagotan eman zaionean, Bankuak gutxienez urtean behin bidaliko dizkio inbertsioei lotutako kostuen eta gastu errealen inguruko informazioa.

HAMARGARRENA.- Funtsen eta finantza-tresnen zuzkidura.

Bankuak baimena du "BEDERATZIGARRENA.- Kostuak eta lotutako gastuak eta zergak" xedapenean aipatzen diren kopuruak lotutako kontuan zorduntzeko eta lotutako kontu horretan behar adinako saldo hartzekodun egon ezean, Bezeroaren izenera Bankuak irekitako kontu korronteetan edo, halakorik izan ezean, baita aurrezki-kontuetan zordundutzeko. Konpentsatzeko ahalmen horrek barne hartuko ditu, Bezeroak hirugarrenekin dituen kontu eta gordailuak, betiere eskubideen eta funtsen erabilera bereizezina (hau da, elkarrekiko solidarioa) izango dela adostu bada. Kontu horietan nahikoa saldorik egongo ez balitz, Bankuak Bezeroari jakinaraziko dio egoera hori eta epe bat emango dio bere betebeharrak bete ditzan. Epe hori igarota, Bankuak gordailututako, erregistratutako edo administratutako finantza-tresnak saldu ahal izango ditu, ahal den neurrian, eta orohar, ordena honi jarraikiz: 1) Errenta aldakor nazional edo nazioartekoa; 2) Inbertsio Kolektiboko Erakundeetako partaidetzak; 3) Errenta Finko publikoa edo pribatua; 4) Bestelako baloreak edo finantza-tresnak, merkaturako likideziaren irizpideari jarraikiz, handienetik txikienera. Halaber, baloreen zorpeko bat gertatuko balitz Bezeroak salmenta agindu bat eman ondoren, Bezeroaren kontura izango dira Bankuak paira litzakeen kalteak, bereziki baloreen likidazioaren eta konpentsazioaren ardura duen erakundea berrerozte eragiketa burutzero iritsiko balitz. Kasu horretan, kalte eta galeren zenbateko ekonomikoa, behar bezala dokumentatuta egongo dena, lotutako kontuan zordunduko da eta Bankuak aurreko kasuan azaldu bezala jardun ahalko du.

Kode Zibilaren 1730. eta 1780. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, Bankuak kontratu eredu honen arabera gordailututako, erregistratutako edo administratutako finantza-tresnak bahi gisa atxikitzeko aukera izango du, zor zaizkion ordainen, indemnizazioen eta diru itzuleren berme moduan. Bankuari Konkurtso Legean xedatutako lehentasuna dagokio kasu hauetan.

HAMAIKAGARRENA.- Kontratu ereduaren iraupena eta amaiera.

Aurkako akordio berezirik ezean, eredu kontratu honen iraupena mugagabea da, baina alderdietako edozeinek hala nahi duenean azkendu dezake.

Bezeroak edozein momentutan desegin ahalko du kontratua, hamabost egun balioduneko aurrerapenarekin

Bankuari zuzendutako idazki bidez. Halaber, Bankuak kontratua desegin ahalko du Bezeroari gutxienez ere hilabete aurretik idatziz jakinaraziz, desegitea jarraian adierazitako arrazoiren baten ondorioa bada salbu: a) Bezeroak kontratutik eratorritako betebeharren bat ordaindu ez izana, b) kapitalak zuritzearen edo merkatuaz abusatzearen inguruko araudia ez betetzea, edo c) Bezeroaren kreditu arriskua, azken kasu honetan kontratua berehala desegingo delarik.

Kontratua desegingo balitz, Bankuak Bezeroari itzuliko dizkio finantza-tresnak, titulu fisikoak entregatuta edo dagokion baloreen konpentsazio edota likidazio zerbitzura atxikitako beste erakunde baten kontabilitate erregistroetara intsuldaketa edo transferentzia burututa. Bi kasuetan ere, Bezeroak aldeztu aurretik itzuli beharko ditu finantza-tresnen zorroaren azken laburpena edo, kasuaren arabera, legitimazio ziurtagiria, bai eta Bankuak jaulkitako jatorrizko gordailuaren agiri edo ziurtagiriak ere, Bezeroak jasotze agiri moduan sinatutakoak. Beharrezkoa balitz, Bankuak tresna judizialen kontsignazio judiziala edo notario bidezko kontsignazioa burutuko du, Bezeroak finantza- tresnak jasotzeari uko eginez gero. Kontratua desegiteko momentuan likidatzeko zain dauden burututako eragiketei dagozkien komisioak ordaindu beharko dizkio Bezeroak Baakuari, eta baita desegitea eraginkor bihurtzen den data arte sortutako aldizkako komisioen zati proportzionala ere.

Kontratu hau ezerezteak ez du ekidingo Bankuak, ezerezte dataren aurretik, hirugarrenekin hartutako obligazioak betetzea edo eragiketak burutzea.

Kontratuaren iraungitze edo desegite arrunta edo aurretiazkoa gertatu ondoren, Bankuak gehienez ere hamabost (15) eguneko epea izango du jada izapidetutako aginduak bete eta gauzatzeko – betiere finantza tresnen izaerak edo Merkaturako egoerek epe luzeago bat eskatzen ez badute–, eta Finantza Tresnen Zorroa itxi eta jakinarazteko.

Bankuak kontratu honi aplikagarriak zaizkion baldintzak aldatu ahalko ditu Bezeroari hilabete bateko aurrerapenarekin jakinarazita. Bezeroak baldintzen aldaketa onartuko ez balu, kontratua azkendu ahalko du epe horren barruan Bankuari jakinarazita Epe hori igarota Bezeroak inolako jakinarazpenik egin ez badu, aldaketak onartu dituela ulertuko da.

HAMABIGARRENA.- Finantza-tresnen leheneratzea edo kontabilitate-transferentzia.

Finantza-tresnak beste erakunde batera intsuldatzea eskatzen bada, beharrezkoa izango da Bankuak hartara ezarrita daukan eredua betetzea; eredu hori Bankuari aurkeztu beharko zaio, finantza-tresnen zorroaren azken laburpenarekin batera, Bezeroak atzealdean sinatuta, jaso-agiri modura, baita horretarako beharrezkoak diren gainerako dokumentuak ere.

Egoki bada, Bankuak Bezeroari entregatutako titulu berdinak leheneratuko dizkio eta posible ez bada, finantza-tresnen iraungigarritasuna dela-eta, gordailututako, erregistratutako edo administratutakoaren kopuru bera leheneratuko dio, zaindutako edo administratutako baloreen mota berekoa, ezaugarri berdinak dituztenak eta eskubide berdinak ematen dizkietenak.

Ezin izango zaizkio fidantza edo bermeei atxikitako finantza-tresnak leheneratu, ezta bahitura edo atxikipen judizialetera atxikita daudenak ere.

Bankuak ezeztapenaren edo intsuldaketaren unean indarrean dauden komisioen tarifetan jasotzen diren ezeztapen- edo intsuldaketa-komisioa jasoko du eta baimena izango du kopuru horiek dokumentu honetako "BEDERATZIGARRENA.- Kostuak, lotutako gastuak eta zergak" xedapenean aurreikusitako moduan.

Adostutako komisioak kobratzeko dagokion epea igaro ostean eta tresnen zaintza edo erregistroa ezerezteko edo tresnak intsuldatzeko ezarritako denbora agortu ostean, likidatzeke dauden komisioak sortuko dira, adierazitako epeari dagokion zati proportzionalen.

HAMAHIRUGARRENA.- Erantzukizuna.

Bankua bere jarduerak sor litzakeen galera ekonomikoen erantzule soilik izango da, kalte horiek dagokion ardurarik gabe egiten direnean edo kontratu honetan edo aplika daitekeen araudian aurreikusitakoa betetzen ez denean, ez du erantzukizunik izango merkatuaren arriskuagatik, ezinbestean, ustekabeen edo Bezeroak Bankuari aginduak edo jarraibideak berandu edo zehaztasunik gabe emateagatik gertatuako kalteengatik.

HAMALAU GARRENA.- Pizgarriak.

Bankuak ekartzen dituen edo hirugarren erakundeengandik jasotzen dituen zerbitzu sariak, komisioak eta diruzkoak ez diren onurak dira pizgarriak, Bankuaren bezeroei finantza-tresnei buruzko inbertsio zerbitzuak ematearekin lotuta daudenak.

Ordaindutako edo jasotako pizgarriak ez du eragozten Banco Santander, S.A. erakundeak bezeroentzako interes onena bilatzea.

Bankuak pizgarriak jasoko balitu, bezeroei eskainitako zerbitzuak eta produktuak egokiak izateko xedatutako mekanismoak eta neurriak aplikatuko ditu, indarrean den legeriari jarraikiz. Bankuak bezeroen eskura jartzen ditu inbertsio erabakiak hartzea errazten duten tresnak eta horien jarraipen egokia egiteko informazioa.

Pizgarrien buruzko informazio eguneratua bezeroen eskura dago www.bancosantander.es, webgunean "Información legal: MIFID" atalean. Horrez gain, Bankuak bere bezeroei jakinaraziko die, kontratatutako zerbitzu edo produktu batzuk pizgarriak izan ditzaketela. Bankuak inbertsio-zerbitzu baten prestazioarekin lotuta edo haiek egindako eragiketa zehatz batekin lotuta jaso dituen pizgarrien berri emango die bezeroei.

HAMABOSGARRENA.- Komunikazioak eta jakinarazpenak. Alderdiek dokumentu honen goiburuan adierazitako helbidea izendatu dute posta eta orotarikoak jasotzeko helbide. Kontratu honekin lotutako komunikazio guztiak bertan adierazitako Bankuaren Bulegora zuzendu beharko ditu Bezeroak. Bezeroak Espainiako helbide bat izendatu beharko du. Espainian posta bidaltzeko helbide jakin bat izendatzen ez bada, jakinarazpenak elektronikoki soilik egingo dira, informazioa aldaketarik gabe gordetzea eta berreskuratzea ahalbidetzen duen Bankuak ezarritako kanalen bidez.

Adierazitako helbidean aldaketarik gertatuz gero, beste aldeari idatziz jakinarazi beharko zaio, eta honek ez du inolako erantzukizunik izango jakinarazpen hori egin arte. Helbidea atzerrira mugituko balitz, Bezeroak beste helbide bat izendatu beharko du Espainian.

kontratu honen helburuak betetzeko. Halakorik egingo ez balu, kontratuan izendatutako helbidea edo jakinarazitako azken helbidea joko da ontzat.

Alderdien arteko komunikazioak eta jakinarazpenak, baita Bezeroak Bankuari igortzen dizkion erreklamazioak ere, Zuzenbidez onartutako edozein bitarteko erabiliz eta [***] egingo dira, alderdiek bestelakorik hitzartu ezean.

HAMASEIGARRENA.- Bezeroarentzako informazio garrantzitsua.

16.1. Bankuari buruz. Banco Santander, S.A. Espainiako Bankuan 0049 zenbakiarekin erregistratutako erakundea da eta Espainiako Bankuak gainbegiratzen du. Kontratu honen xede den jarduera Baloreen Merkatuaren Batzorde Nazionalaren ikuskapenari atxikita dago, Edison kalea 4, 28006 Madril (Espainia).

16.2. Auzibidetik kanpoko erreklamazioen prozedura. Alderdien artean desadostasunik balego kontratu honekin erlazionatutako edozein auzitan, Bezeroak erreklamazioak egin ahal izango ditu Erreklamazioen eta Bezeroarentzako Arretaren Zerbitzuan, posta arruntez 35.250, 28080 Madrid posta-kutxan, edo posta elektronikoki bidez santander_reclamaciones@gruposantander.es helbidean.

Ebazpenarekin ados egon ezean, edo aplikagarri den araudiak ezarritako epea igarotakoan ebazpenik jaso ez bada, Bezeroak balore-merkatuko Batzorde Nazionalera jo ahal izango du; ezinbestekoa izango da erreklamazioa aurrez Bezeroaren Arreta Zerbitzuaren aurrean aurkeztu izana.

16.3. Gordailuen Berme Funtsa. Banco Santander, S.A. erakundea Kreditu Erakundearen Gordailuen Berme Funtzari atxikita dago (C/ José Ortega y Gasset, 22 – 28006 Madrid). Bezeroak sistema honi buruzko informazio gehigarria aurkituko du funtsaren webgunean: www.fgd.es.

HAMAZAZPIGARRENA.- Datuen Babesari buruzko oinarritzko informazioa.

1. Kontratu honetako titularrak, eta bertan parte hartzen duen edozein hirugarrenetik, esaterako, abal-emaileak, berme-emaileak, ordezkariak adota kontratuaren titularraren harremanetarako pertsonak baimenduak (aurrerantzean, "Interesdunak" eta, oro har, "Interesdunek"), Banco Santander S.A. enpresari (aurrerantzean, "Bankua") ematen dizkieten izaera pertsonaleko datuak (aurrerantzean, "Datuak") Bankuak tratamenduaren arduradun gisa tratuko ditu, batez ere, xede hauetarako:

- (i) Bankuarekin kontratuak kontratatzeko, mantentzeko eta horien jarraipena egiteko harremana mantentzeko.
- (ii) Kontratuaren titularrari zuzenduriko ekintza komertzialak garatzeko, oro har, eta zehazki interesgarri aurki ditzakezun bankuak merkaturatutako finantza- eta aseguru-produktu eta -zerbitzuak eskaintzea edota gomendatzea, iraganean kontratatutakoak aintzat hartuta. Produktuak gomendatzeko, profilaren analisi bat burutu ahal izango da oinarri. Kasu batzuetan, datuen tratamendu automatizatuan oinarritutako bitartekoak soilik erabiliz egingo da hori.
- (iii) Iruzurrezko jarduerak ikertzeko edota ezagutzeko, interesdunen datuak hirugarrenei jakinaraztea ere barne, Santander Taldeko enpresak izan edo ez.
- (iv) Interesdunek telefonoa hautatzen badute Bankuarekin harremanetan jartzeko, ahotsa grabatuko da zerbitzuaren kalitatea mantentzeko, grabaketa horiek epaiketa eta epaiketaz kanpoko frogak gisa erabilki ahalko dira, beharrezkoa balitz.

(v) Anonimo egiteko prozesuak egiteko. Prozesu hori gauzatu eta gero, bankuak ez du interesdunak identifikatzeko modurik izango. Prozedura horien helburua anonimo egindako informazioa estatistikak kalkulatzeko eta jokabide-ereduak osatzeko da.

(vi) Interesdunen datuak (identifikatzekoak eta harremanetan jartzeko funtsezkoak) Santander Taldeko beste enpresa batzuei eta partaidetzako hirugarren enpresei edota Santander Taldeko enpresa laguntzaileei lagatzeko, interesdun horiek bankuak merkaturatzen dituen erakunde horietako produktu edota zerbitzuren bat kontratatuz gero.

(vii) Interesdunen datuak kreditu-informazio baterako sistemei jakinaraztea, ez ordaintzeen kasuetan.

2. Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkatzeko, eta horien tratamendua mugatzeko eta horiek eramateko eskubideak baliatu ahal izango dituzte Bankuaren aurrean. Gainera, erabaki indibidual automatizatuaren xede ez izateko eskubidea baliatu ahal izango dute; hots, erabakiak hartzeko, pertsona baten laguntza eskatu ahal izango dute. Horretarako, mezu elektronikoa bat bidali beharko dute privacidad@gruposantander.es helbidera edo posta arrunt bat helbide honetara: Juan Ignacio Luca de Tena 11 - 13, 28027 Madrid. Interesdunak NANaren edo bere nortasuna egiaztatzeko beste dokumentu baten kopia erantsi beharko du.

3. Datuen babesaren inguruko informazio xehatua Santander erakundearen webguneko Lege Oharraren

atalean aurki daiteke: www.bancosantander.es. kontratuaren titularrak informazio hori edozein ordezkari edo harremanetarako pertsonari helarazteko konpromisoa hartzen du, betiere kontratu harremanaren ondorioz pertsona horren datuak Bankuari jakinarazi badizkio baina kontratu honetan sinatzailea ez bada.

HEMEZORTZIGARRENA.- Legeri eta jurisdikzio aplikagarria. Dokumentu hau eta Titularrak hemen aurreikusitako produktuak eta zerbitzuak kontratatu eta zaintzeko sinatuko dituenak, Espainiar legeriaren arabera gauzatuko dira. Haien interpretazioari, aplikazioari edo burutzapenari buruz sor daitezkeen auziak, Espainiako legeria prozesalarekin bat etorritik, eskumena duten epaitegi eta auzitegi jurisdikzioari atxikiko zaizkie.

Merkataritza-izaera duen kontratu hau kontratu eredu bat da, balore-merkatuei buruzko Legearen testu bategina onesten duen urriaren 23ko 4/2015 Errege Dekretu Legegileari, tarifei eta kontratu ereduari dagokienez inbertsio-zerbitzuetako enpresen eta inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten gainerako erakundearen erregimen juridikoari buruzko otsailaren 15eko 217/2008 Errege Dekretuaren 71. eta 76. artikulua garatzen dituen EHA/1665/2010 Aginduari eta tarifei buruzko informazio-liburuxkari eta kontratu ereduaren edukari buruzko Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren abenduaren 12ko 7/2011 Zirkularrari jarraikiz.

Goiburuan adierazitako finantza-tresnen zorroen kontua irekitzeko adostutako beste kontratu guztiak baliogabetzen ditu kontratu honek eta, Bankuaren eragiketen edo eragiketa logistikoen ondorioz finantza-tresnen zorroan izan daitezkeen enumerazio aldaketak edozein direlarik.

Bezeroak kontratu eredu hau, alderdiek xedatutako eta onartutako baldintza orokorrak barne dituenak, arautzen duten baldintzak ezagutzen ditu. Halaber, Bezeroak adierazten du orri guztietan izenpetutako kontratu honen kopia bat jaso duela ekintza honetan, eta eskuragarri duela eta ezagutzen duela balore-merkatuaren eragiketa eta zerbitzuetarako gehienezko Tarifen Informazio Liburuxka, www.bancosantander.es webgunean eta Bankuaren bulegoetako iragarki taulan aurki daitekeena.

Azaldutako guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdi biek kontratu hau bi aletan izenpetu dute goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

BANCO SANTANDER S.A
Por Poder:

FINANTZA-TRESNEN ZORROAREN
TITULARRA(K)

LOTUTAKO EURO / DIBISA KONTUAREN
TITULARRA(K)